

AMAKI BASTOIA

Gure taldeak pentsatutako ideia itsuentsako makilari buelta bat ematea da, makilak radar bat izatea proposatzen dugu, bastoi horrek sentsore bati esker objektuak antzemango ditu eta soinu eta bibrazioen bitartez zein hurbil dagoen adieraziko du. Makilak lokalizatzaile bat izango du ere, eta nahi izanez gero, lokalizatzailea programatu dezakezu "google maps" bezala erabiltzeko. Amaitzeko gure bastoia, elektrikoa izaterakoan, kargatu behar dela pentsatuko duzu, baina ez, ekologikoa da eta dinamo bati esker dabilenez dinamoaren birei esker bastoia bakarrik kargatuko da, ITSUAK ERE EKOLOGISMOAREN ALDE!

Amaki bastoia beste bastoiak bezain arina izango da. Makilak puntan dinamoia edukiko du kargatzeko eta makilaren heldulekua akoltzatuta egongo da eta bere barnean bibragailu bat edukiko du. Horrela, makilak zerbaiti hurbiltzerakoan soinuan egingo du eta bibratuko du, hurbilago dagoenean intentsitate gehiagorekin.

Makilak gauzak detektatzeko mugimendu sentsore bat izango du, sentsore horrek 5 metrotara dauden gauzak antzeman ahalko ditu. Ultrasoinu sentsore batzuk ere izango ditu alboan, argazkian ikusten den moduan. Makilak lehen esan bezala, antzemateko gai izango da, eta lokalizadore hori makilean txertatuta egongo da. Eta amaitzeko kontrol panel bat izango du, amatatu eta pizteko, eta bolumena igo eta jaisteko. Panel hau itsuak kontrolatzeko itsuen letrak (atsamarrekin irakurtzen direnak) izango ditu, beraiek ulertzeko.

Makila hiru partetan azalduta dago, punta dinamoarekin, erdiko partea, sensoreekin eta gauza teknikoekin, eta goiko partea heldulekuarekin.

